



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailak 13

Vitoria-Gasteiz, 13 de febrero de 2024

Segurtasuna

JAURLARITZAK ETA FORU ALDUNDIEK HITZARMENA SINATUKO DUTE EUSKADIN SUTEAK ITZALTZEKO HELIKOPTERO BAT ELKARREKIN FINANTZATZEKO

- Klima-aldaketaren eragin gero eta handiagoak, muturreko fenomeno meteorologikoen gorakadarekin batera, hala nola, temperatura oso altuak eta denboran mantenduak, basoko suteen arriskua nabarmen handitu du
- Euskadin suteak itzaltzeko 26 parke daude, eta horietako baliabideak, hemendik aurrera, zeregin horietarako berariaz diseinatutako aireko baliabide batekin osatuko dira

Gobernu Kontseiluak gaur baimendu du Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean lankidetzaz hitzarmen bat sinatzea suteak itzaltzeko helikoptero bat alokatzeko. Akordioa sinatu da klima-aldaketak Euskadin duen eragin gero eta handiagoari erantzuteko, horren ondorioz muturreko fenomeno meteorologikoak gero eta sarriago gertatzen baitira, eta, besteak beste, denboran mantentzen diren tenperatura altuek basoko suteen arriskua areagotzen dute.

Laster sinatzekoa den eta kontratazio-espeditatea abiaraziko duen hitzarmena lau erakundeek egindako azterketa sakonaren emaitza da. Gainera, suteak itzaltzeko lehendik dauden ekipamenduak osatzeko komenigarritasunari erantzuten dio, zeregin horretarako berariaz diseinatutako aireko baliabideak ere gaituz.

Eusko Jaurlaritzak **1,2 milioi euroko aurrekontu-partida onartu du** (891.000€ alokairurako eta 330.000€ gehienez ere 240 hegaldi-ordutarako) zerbitzu hori alokairu-erregimenean kontratatzeko, eta erakunde guztien artean finantzatuko dute ehuneko hauen arabera:

- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila: % 17,50
- Arabako Foru Aldundia: % 22,32
- Bizkaiko Foru Aldundia: % 32,66
- Gipuzkoako Foru Aldundia: % 27,52

Hitzarmenaren arabera, helikopteroaren alokairuaren kostuaz gainera, erakunde bakoitzak helikopteroa bere lurraldean erabiltzen den ordu bakoitzaren kostua ere finantzatuko du, kontratuan ezarritako prezioaren arabera.

Suteak itzaltzeko 26 parte

Euskadin suteak itzaltzeko foru-aldundien eta udalen titulartasuneko 26 parke daude: 10 Bizkaian, 9 Gipuzkoan eta 7 Araban. Akordio hori posible izan da Euskadik segurtasun publikoaren, babes zibilaren eta larrialdien arloan dituen

eskumenei esker, eta kontuan hartzen ditu tokiko autonomia errespetatzea eta eskumenen banaketa, Lurralde Historikoen Legeak eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak foru-aldundiei eta udalei suteak itzaltzeko araudi autonomikoa betearaztearen arloan aitortzen dizkietenak.

Zaintza eta jarraipena

Hitzarmena bi urtez egongo da indarrean (alokairu-kontratua formalizatzen denetik aurrera), eta beste bi urtez luzatu ahal izango da.

Hitzarmena betetzeko beharrezko jarduerak koordinatzeko, gainbegiratzeko eta kontrolatzeko, bai eta horien jarraipena egiteko ere, lau erakundeetako bakoitzak izendatutako pertsonak osatuko duten batzorde bat eratuko da.

Lana eta Enplegua

LANBIDEK HIRU MILIOI EURO BIDERATUKO DITU AURTEN GAZTEENTZAKO IKAS-EKINEZKO PRESTAKUNTZA ETA LANERAKO HEZIBI PROGRAMARA

Lanbide Enplegu Zerbitzu Publikoak, 2024. urtean, hiru milioi euro bideratuko ditu gazteek prestakuntza eta lana txandakatzeko HEZIBI programa finantzatzeko. Programa horren bidez, gazteek beren lanbide-gaitasunak hobetzea nahi da, enpresa batean ordaindutako jarduera bat egiten duten bitartean.

Idoia Mendia Lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio gaur Lanbide Heziketako ikasleei eta gazte langabeei zuzendutako programa honen zuzkidurari. Haren helburua da lanbide-gaitasunak hobetzea, Profesionaltasun-Ziurtagiri bat edo hasierako Lanbide-Heziketako titulu bat lortuz, enpresako lan-jarduera ordainduarekin txandakatuta. Horrela, enpresen beharrak langileek eskuratutako gaitasunetara egokitzen laguntzen da.

Onartutako zuzkidura, hiru milioi euro, txandakako prestakuntza-kontratuen dirulaguntzak finantzatzeko erabiliko da, bai eta profesionaltasun-ziurtagiri bat lortzeari lotutako proiektuen kostu gehigarria finantzatzeko ere. Enpresek programa honen esparruan egiten duten lanaldi osoko txandakako prestakuntza-kontratuaren urte bakoitzeko 2.000 euroko dirulaguntza emango da, eta kontratuaren iraupena urtebetetik beherakoa edo hortik gorakoa bada edo % 100etik beherako lanaldia badu, dirulaguntza iraupenaren eta lanaldiaren araberakoa izango da. Era berean, 400 euroko dirulaguntza emango zaio ziurtagiri hori emango duen prestakuntza-zentroari txandakako profesionaltasun-ziurtagiria egingo duen pertsona bakoitzeko.

laz, 867 kontraturi eman zitzaien dirulaguntza (1,67 milioi euro), eta 2022an, berriz, 782 kontraturi (1,52 milioi euro).

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

GARAMENDI SAILBURUAK AURRERATU DU ENPLEGU PUBLIKOAREN FINKATZE PROZESUAREN LEHEN PLAZAK MAIATZEAN ESLEITUKO DIRELA

- **Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailburuak legegintzaldi honetan zerbitzu publikoaren kalitateari lotutako enplegu publikoa bultzatu eta hobetzera eraman duten datuak eta jarduerak aurkeztu ditu**
- **Adierazi duenez, hau izan da "enplegu publikoaren kalitatea hobetzeko legegintzaldia"**
- **Enplegu publikoa finkatzeko prozesuek Administrazio Orokorrean 3.700 plaza ingururen behin-behinekotasunaren amaiera ekarriko dutela azpimarratu du**
- **Azterketen eta merezimenduen balorazioaren ondoren, prozesuak azken txanpari aurre egiten diola eta lehen 1.600 plazatik gora esleitu aurreko unean dagoela jakinarazi du Garamendik**
- **Nabarmentzekoa da azken hiru urteetan enplegu publikoa sortzeko bultzada, 5.000 pertsona gehiago**
- **Gogora ekarri ditu enplegu publikoaren kalitatea hobetzeko jarduerak eta proposamenak, hala nola ordutegien malgutasuna, gaixotasunagatiko lanaldi-murrizketak...**

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailburu Olatz Garamendik agerraldia egin du gaur hedabideen aurrean, Gobernu Kontseiluaren ostean, eta enplegu publikoaren arloan bere sailak iraganean egin dituen eta egun egiten ari den jarduerak azaldu ditu, bileran zehar jakinarazi dituenak. Bere hitzaldian, funtzio publikoaren esparruan legegintzaldia izaten ari denaren ibilbidea egin du, eta "enplegu publikoaren kalitatea hobetzeko legegintzaldia" dela esan du.

Sailburuak defendatu duenez, balorazio hori arlo horretan egindako hainbat jarduketaren ondorioa da, Kidego eta Eskalen eta Enplegu Publikoaren legeetatik abiatuta, enplegu publikoa finkatzeko prozesuei ekitea ahalbidetu baitute. Prozesu hori oraindik ez da amaitu; gaur egun, azken txanpan sartuta dago, eta 2024ko azkenetan amaitzen denean, 3.700 plaza inguruko behin-behinekotasuna amaituko da Administrazio Orokorrean, eta %8tik behera geratuko da.

Garamendik zehaztu duenez, azterketak egin eta merezimenduak baloratu ondoren, hau da lehen 1.600 plazatik gora esleitu aurreko unea, besteak beste, eskala administratiboari eta administrari laguntzaileari dagozkienak eta laguntzako langileak, bai eta erizaintzako teknikariari dagozkionak ere. Aditzera eman duenez, plazak maiatzaren hasieran esleitu dira eta lanpostuaz jabetzea uztailean egingo da.

Gainerakoa goi-mailako eskalei, fakultatiboari eta eskala teknikoari dagokie, eta irailean hasiko da esleipena; karguaz jabetzea, berriz, azaroan eta abenduan aurreikusten da.

Gobernu Kontseiluaren osteko prentsaurrekoan nabarmendu duen beste alderdi bat izan da 2020ko urtarriletik 2023ko abendura bitartean enplegu publikoak EAEko sektore publiko osoan izan duen gorakada. Ildo horretan, azpimarratu du aldi horretan langile publikoak 5.000 pertsonatik gora gehitu direla, betiere zerbitzu publikoak indartzearen aldeko apustu bat dela kontuan hartuta.

Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetan enplegu publikoarekin duen konpromisoaren beste alderdi bat Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak berriki iragarri duen 2023ko lan eskaintza publikoa da. "3.000 plaza baino gehiago dira, eta, horri esker, aldian-aldian enplegu deialdiak egiteko konpromisoa bete ahal izango dugu, belaunaldien arteko erreleboari modu iraunkorrean heltzeko eta bitartekotasunari aurre egiten jarraitzeko", adierazi du bere hitzaldian.

Garamendik langile publikoen lan-baldintzak hobetzearen aldeko apustua agerian uzten duten zenbait neurri ere hartu ditu. Adibide gisa, honako hauek aipatu ditu: sartzeko eta irteteko ordutegiaren malgutasuna 12 eta 14 urte bitarteko seme-alabak dituztenentzat zabaltzea, senideen gaixotasun oso larriagatik edo adingabeak edo desgaitasunen bat duten pertsonak zaintzeagatik lanaldia murriztea, besteak beste. Ildo horretan, gogorarazi du azken mahai sektorialean gehiengo sindikalak baztertu egin dituela Administrazioaren proposamenak, lanaldiei, ordutegiei, baimen eta lizentziei eta telelanerako sarbideari buruzko baldintzak nabarmen hobetzen zituztenak.

Desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako hautaketa prozesua

Era berean, desgaitasun intelektuala duten 6 pertsona enplegu publikoan sartzeko hautaketa prozesuaren garrantzia azpimarratu du Garamendik. "Prozesu honek erakusten du Gobernu honek konpromiso sendoa duela pertsona horiek lan munduan baldintza berdinetan sartzeko", azpimarratu du Sailburuak. Prozesu hau martxoaren 5ean hasiko da lehen azterketekin eta ia 400 pertsonak parte hartuko dute.

Era berean, toki-administrazioetan gaikuntza nazionala duten funtzionarioentzat idazkaritza, kontu-hartzailatza eta diruzaintza lanpostuetarako gordetako lanpostuen eskaintza ekarri du gogora. "Euskaditik deialdia egin den lehen aldia da, zalantzan jarri den eskumen bat erabiliz, baina udalek eta toki-erakundeek plaza horiek hizkuntza eskakizun egokiarekin bete ahal izatea ziurtatzen duena", adierazi du Garamendik.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

ENPLEGATU PUBLIKOEN ORDAINSARIETAN %0,5EKO IGOERA GEHIGARRIA ONARTU DU GOBERNU KONTSEILUAK

- Igoera martxoko nominan gauzatuko da eta 2023ko urtarriletik atzerako eragina izango du
- Hazkundera BPG nominalaren bilakaerari lotuta dago, eta aurreko beste bi igoerei (% 2,5 eta %0,5) gehitu behar zaie; beraz, guztira, 2023ko ordainsariaren igoera %3,5ekoa izan da

Gobernu Kontseiluak astearte honetan onartu du Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien **%0,5eko** igoera gehigarria, 2023 urteari dagokiona. Igoera hori Barne Produktu Gordinak (BPG) azken ekitaldian izan duen bilakaerarekin lotuta dago.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak proposatuta, **2024ko martxoko nominan** ordainduko den puntu erdiko igoera horrek 2023ko urtarrilaren 1etik atzerako eragina izango du, Estatuko ekonomia iaz %2,5 hazi zela baieztatu ondoren.

Ordainsari igoera horrek eta aurretik onartutako ehuneko 2,5 eta 0,5eko igoerek guztira **ehuneko 3,5eko igoera** batzen dute 2023an, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien aldean.

Eusko Jaurlaritzak **20,7 milioi euroko** inbertsioa egingo du neurria gauzatzeko.

Ekonomia eta Ogasuna

EUSKO JAURLARITZAK LEHENTASUNEZKO ENPLEGU-SISTEMA FINKATZEN DUEN EUSKADIKO BGAE-EN DEKRETU BERRIA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak Euskadiko BGAE-entzako dekretu berria onartu du gaur, Estatuan bakarra eta berritzailea den etorkizuneko lehentasunezko enplegu-sistema finkatzeko. Dekretu hori urtarrilaren 26an berretsi zuen Gizarte Aurreikuspenaren Euskal Kontseiluak. Dekretu horrek lehentasunezko BGAEak arautzen ditu Euskadiko pentsioen eredu osagarri gisa, eta langileen eta enpresaren artean partekatutako ekarpenez hornituko dira, batez ere errenta gisako prestazioak emanez.

Testu berriak, era berean, BGAE-entzat egokiak diren aktibo berriak jasotzen ditu. Horiek finantza-merkatu berrietarako sarbide dibertsifikatuagoa ematen diete eta sozialki arduratsuak diren inbertsioen alderdiak garatzen dituzte. Gainera, gehieneko administrazio-gastuen beherapena sartzen da, eta horrek zuzeneko onura ekarriko die pentsio osagarriari, zuzeneko proportzioan igoko baitira. Berrikuntzen artean, BGAE-en gobernu-organoetan gizonen eta emakumeen arteko banaketa orekatua lortzeko eskakizunak nabarmentzen dira, besteak beste.

Dekretua apirilean jarriko da indarrean, erakundeen inbertsio-araubidea malgutuz duten aurreikuspenen aplikazioa errazteko. Indarrean jarri ondoren, 6 hilabeteko epea egongo da estatutuak eta erregelamenduak dekretura egokitzeko. Epe hori gorabehera, administrazio-gastu berriak 2024ko uztailaren 1etik aurrera aplikatuko dira.

Lehentasunezko enpleguko BGAE-en helburu nagusia da errenta gisako prestazioak kobratzea, Gizarte Segurantzaren pentsio publikoa osatzeko. Horretarako, Dekretuak gutxieneko kapital bat finkatzen du, eta hortik aurrera, BGAE bateko bazkideak zenbateko hori metatu ondoren, nahitaez bihurtu beharko da biziarteko errenta edo finantza-errenta, gutxienez 15 urterako.

Dekretua idaztean, prestazioaren ordainketa errenta moduan zehazteko atalasea ezarri da, Gizarte Segurantzaren 65 urteko gutxieneko erretiro-pentsioarekin lotutako pentsio-zenbatekoen tartearan arabera. Sektorearekin eta gizarte-eragileekin hainbat bilera egin eta erregulazio berriaren ondorioak aztertu ondoren, neurrizko lurreratzea planteatzen da, erdua aurreikuspen-sistema baloratua eta onarpen handiagoa izango duena izateko moduko zifrekin.

Hori guztia, gizarte-aurreikuspen osagarria gaztetatik orokortuz gero, partekatutako ekarpenekin, Dekretu honetan ezarritako kopurua baino eskubide ekonomiko handiagoak metatuko direlakoan. Horri prestazioak errenta moduan kobratzearekin bat datorren tributazioa gehitzen bazaio, benetako aurreikuspen-sistema osagarri propioa eta ibilbide luzekoa lortuko da.

Dekretuak prestazioak jasotzeko formula mistoa ezartzen du (errenta moduan eta kapital moduan). Lehentasunezko sistema orokortzeko helburuarekin, kontuan hartu da Gizarte Segurantzaren ezkontidea ardurapean duen gutxieneko pentsioa halako bi eta erdi ezartzea 2024rako, hau da, 36.166 €. Era berean, eskubide ekonomikoen % 20 gehienez kapital moduan kobra litekeela jotzen da. Parametro horiekin, hileko pentsioak 200 eurokoak izango liriteke 15 urterako 12 ordainsaritan, eta 150 eurokoak 20 urterako 12 ordainsaritan. Kapitalaren % 20 izanez gero, hilean 160 €-ko pentsioa lortuko litzateke 15 urtean, edo 120 €-koa 20 urtean.

Horrekin batera, lehentasunezko BGAE-ekin egindako bileren ondoren eta bazkideek eskuratutako eskubideen babesean, errenta moduan ordaintzeko atalasea finkatu da, ezkontidea ardurapean izanda Gizarte Segurantzaren erretiroaren urteko gutxieneko zenbatekoaren halako hiru: 43.400 € 2024an, eta kapital moduan kobratzeko gehieneko portzentajea % 25ekoa, estatutuek hala jasotzen badute. Lau urteko aldi iragankorra izango da lehentasunezko enpleguko BGAE-entzako errenta gisako prestazioak nahitaez kobratzeko, eta araubide iragankor horretan sartu ahal izango dira bai aldi horretan eratzen diren lehentasunezko BGAE berriak, bai lehendik eratuta dauden eta lehentasunezko bihurtzen diren enpleguko BGAEak.

Ekonomia eta Ogasuna

EUSTAT- EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEAREN ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENA, NORA KALE-IZENDEGIKO DATU BASEAK ETA ZERBITZUAK ESKURATZEKO

Astearte honetako Gobernu Kontseiluak, bere baimenarekin, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren, Eustat-Euskal Estatistika Erakundearen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko hitzarmen bat sinatu du, kale-izendegiko NORA datu-baseetan eta zerbitzuetan sartzeko.

Hitzarmen honen helburua da, klausuletan zehazten diren akordioetan oinarrituta, hiru erakunde sinatzaileen arteko ahaleginak hobeto aprobetxatzea eta bikoiztasunak saihestea, eta horrek, aldi berean, baliabide publikoak aurrezteka ekarriko du.

Hitzarmenaren xedea da Bizkaiko Foru Aldundiak NORA datu eta zerbitzuetarako sarbidea izateko prozedurak eta baldintzak ezartzea, kale-izendegiko/portalekoetako datuen sinkronizazio ezin hobea ahalbidetzeko, eta, horrez gain, behin-behineko altak emateko edo Bizkaiko Foru Aldunditik gorabeherak helarazteko aukera zabaltzea, Eustaten kale-izendegiko datuak eguneratzeko beste iturri bat izan dadin.

NORA gordailu normalizatua da, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko kaleetako eta atarietako datu ofizial horiek erabiltzeko aplikazio eta irtenbide informatikoak eskuratzea eta eraikitzea errazten duten zenbait zerbitzu ere. NORAK lokalizazio-informaziorako sarbide-kanal batzuk eskaintzen ditu (API, javascript, API geoEuskadi), sistema informatikoetan integratzea errazteko. Horrela, NORA zerbitzuek kaleko/atariko/hutsuneko datuetarako sarbidea errazten dute, kasuan kasuko fenomenoei dagozkien NORA identifikatzaileak biltegitratuz, eta datu horiek zuzenean geolokalizatzea ahalbidetzen dute lurraldean.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 550.000 EURO BIDERATU DITU DOKTORETZA ONDOKO IKERTZAILEEN ATZERRIKO EGONALDIETARAKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, Doktoretza Ondoko Hobekuntza Programan parte hartzen duten ikertzaileei zuzenduriko laguntzak deitzen dituen agindu bat. Laguntza deialdi honek 550.000 euroko zenbatekoa du orotara eta ikertzaile doktore horiek atzerriko egonaldietako zentroetan dauden bitartean izan ohi dituzten ostatu eta mantenu-gastuak finantzatzea du helburu.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Eusko Jaurlaritzak 2023-2024 ikasturterako deitua duen Doktoretza Ondoko Hobekuntza Programaren onuradunek. Ezinbesteko baldintza izango da ikertzaile horiek jardunean egotea, doktoretza ondoko laguntzen lehen edo bigarren urtean. Ostatu eta mantenu-gastuetarako ematen den laguntza hau Doktoretza ondoko programako gainerako laguntzen osagarri da, eta 27,35 eurokoa izango da zenbatekoa atzerrian emandako egun bakoitzeko. Egonaldia 2024 urtean hasi beharko da.

Joan den 2023an, doktoretza ondoko programako 40 doktorek jaso zituzten atzerriko egonaldiak finantzatzeko laguntza hauek.

Doktoretza Ondoko Hobekuntza Programa

Doktoretza ondoko programaren onuradun diren ikertzaileek lan-kontratu bat sinatzen dute ikerkuntzan diharduen euskal erakunde batekin, gehienez ere lau urterako. Erakunde edo ezarpen-zentro hori unibertsitate, ikerketa-zentro edo osasun-ikerketako institutu bat izan ohi da, I+Gean gaitasuna eta jarduera egiaztatua duena eta egoitza soziala Euskadin duena.

Doktoretza ondoko hobekuntzako 48 hilabete horien barruan, gehien 24 hilabeteko iraupena izango duen lehen fasean, doktorea bere ezarpen-zentrotik atzerriko ikerketa-zentro batera joan ohi da, ikerketa-proiektu bat garatzeko. Bigarren fasean berriz, ikertzailea Euskadiko ikerketa-talde batean txertatuko da. Gaur Gobernu Kontseiluak onartutako laguntza atzerrian burutzen den lehen faseko egonaldi-gastuetarako jasoko du doktoreak.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

GOBERNU KONTSEILUAK BI HITZARMEN BAIMENDU DITU ERMUKO ETA MUNDAKAKO UDALEKIN, ALOKAIRUKO EHUN ETXEBIZITZA PUBLIKO ETA ZUZKIDURA-BIZITOKI BAINO GEHIAGO ERAIKITZEKO

Gobernu Kontseiluak baimena eman du Euskal Autonomia Erkidegoko udalekin —Ermua eta Mundaka— bi hitzarmen berri sinatzeko eta etxebizitza publikoak eta zuzkidura-bizitokiak —guztiak alokairuan— eraikitzeke, herritarrek etxebizitza eskuragarri baten eskaerari erantzuteko asmoz.

Bizkaiko Ermua udalerriarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, Betiondo esparruan —udalerraren iparraldean— bi partzela doan lagako dira alokairuko 80 zuzkidura-bizitoki eraikitzeke. Lehenengoak 1.990,52 m²-ko azalera du guztira; bigarrenak, berriz, 1.961,09 m²-koa; bi kasuetan, bi eraikin altxatzeko aukera dago. Eraikin horiek lurpean bi solairu, beheko solairua eta goiko hiru solairu izango dituzte. Akordio horren bidez ezartzen da Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila arduratuko dela proiektuak idazteaz, obra zuzentzeaz eta gauzatzaz, bai eraikinei dagokienez, bai ingurunea urbanizatzeari dagokienez.

Bestalde, Mundakako Udalarekin sinatutako hitzarmenak Erreka esparruan alokairuko babes publikoko 24 etxebizitza inguru eraikitzeke baldintzak zehazten ditu. Honako honek aurreko hitzarmen bat ordezkutzen du, bi aldeen arteko akordio baten ondoren likidatu zena, Udalak finka hori doan lagata. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila arduratuko da lehendik dagoen eraikina eraistaz, eraikuntza-proiektuak idazteaz, obrak egikaritzeaz eta horiek amaitzean beheko solairuko lokala Udalari lagatzeaz.

Bi akordioetan ezartzen denez, etxebizitzak eta bizitokiak esleitzeko prozeduran ezarritako kupoak hartuko dira kontuan; kupo horien arabera, etxebizitzak erreserbatuko zaizkie gazteei (% 40a) eta etxebizitza izateko eskubide subjektibo onartua dutenei, lehentasunezko beste kolektibo batzuen artean.

Bi hitzarmen horien helburua da Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala 2022-2036an adostutako helburuak lortzea sektore publikoko eta pribatuko 90 eragileren artean, eta hirugarren sektoreko erakundeekin, alokairuko parke publikoa handitzeko eta, horrela, euskal herritarrek etxebizitza eskuragarri baten beharriari erantzuteko.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA ONARTU DU

- **1991.enetik Legealdi bakoitzean egin diren berdintasunerako aurreko zazpi planak baino denbora-tarte zabalagoa duen estrategia aurkezten du**
- **Plangintza-tresna bat da, eta 11 jomuga zehatz ezartzen ditu 2030erako**

Gobernu Kontseiluak EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030erako Estrategia onartu du. Dokumentu hori euskal botere publikoek jarraitu beharreko ibilbide-orria da, gure gizartean emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskubidea eraginkortasunez aplikatu ahal izateko.

Nerea Melgosa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketarako sailburuak azaldu duenez, estrategia erakunde bakoitzak bere eskumenen eta lehenetsuen arabera autonomiaz eta malgutasunez landu behar duen erreferentziatzko esparru estrategikoa da.

2030era begira dagoen estrategia hori onartuta, Eusko Jaurlaritzak, lehen aldiz, legealdi bakoitzean berdintasunerako plan bat egiteko logika hausten du (1991tik, berdintasunerako zazpi plan egin dira etengabe), eta izaera estrategikoagoa eta, koherentziaz, denbora-horizonte zabalagoa duen proiektzio baten aldeko apustua egiten du. Horrela, bat egiten du 2030 Agendarekin eta Garapen Iraunkorreko Helburuekin, eta eraginkortasuna ematen dio emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legeari.

Horrela, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategia plangintza-tresna da, 2030ean Euskadin honako 11 helburu zehatz hauek lortzeko:

1. Euskadin gaur egun dagoen Genero Berdintasunaren Indizea 75 puntutik gorakoa izatea.
2. Euskal herri-administrazioen aurrekontuaren % 1,5, gutxienez, berdintasun-politikak garatzeko erabiltzea.
3. Euskal erakunde publiko guztiek beren helburuak betetzeko langile eta aurrekontu-zuzkidura nahikoak dituzten berdintasun-zerbitzuak eta -unitateak izan ditzaten lortzea.
4. Euskal administrazio publikoetako langile guztien oinarritzko, mailakako, etengabeko eta nahitaezko prestakuntza bermatzea.
5. EAEko enplegu-tasarekiko genero-aldea gutxienez erdira murriztea.
6. Euskadin generoko soldata-arrakala 5 puntu murriztea.
7. Euskal hezkuntza-sistemako ikastetxe guztiek hezkidetzaren plan propioa izan dezaten lortzea, egoeraren diagnostikoari erantzun eraginkorra emateko.
8. Etxeko lanetan eta zaintza-lanetan EAEn dagoen genero-aldea gutxienez erdira murriztea.

9. EAEn bizi diren pertsona guztiek emakumeen aurkako indarkeria matxista onartezintzat jotzea.
10. EAEn babes-sistemaren barruan eraildako emakumeak zerora murriztea.
11. EAeko Administrazio Orokorretik bermatzea indarkeria matxistaren biktimek laguntza ekonomikoak jasotzen dituztela kalte-ordainak ordaintzen ez direnean.

11 helburu horiek lortzeko, 2030erako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Estrategiak lau ardatz ditu: Gobernu ona, Emakumeen ahalduntzea, Antolaketa sozial iraunkorra eta ekitatiboa eta Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak. Era berean, 13 helburu estrategiko, 31 lan-ildo eta 128 berariazko ezarri dira lau gai nagusien inguruan.

Gobernu Onari dagokionez, emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko konpromiso politikoa bermatu nahi da, administrazio-jardueran txertatu, eta gobernantza instituzionalaren eredia eraldatu.

Dokumentuak administrazio publikoetan emakumeen ahalduntzea bultzatzea aurreikusten du, ikuspegi interseksionalaren bidez eta ikuspegi feminista duten lidergoekin.

Gizarte-antolaketa jasangarri eta ekitatiboari dagokionez, estrategiak honako hauek proposatzen ditu: demokrazia zaintzailea eraikitzeko bidean aurrera egitea, erakundeen kulturen eta Euskadi modernizatzeko prozesuan berdintasuna sartzea, bai eta antolaketa-eredu justu, berdintasunezko eta iraunkor bat garatzeko konpromisoa indartzea ere.

Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak izeneko laugarren ardatzak hiru helburu estrategiko ezartzen ditu: ikerketa, sentsibilizazioa, prebentzioa eta prestakuntza espezializatua bultzatu, emakumeen eskubideak bermatzeko eta indarkeria matxistari erantzuteko ahalduntzea bultzatu eta erakundeen arteko esku-hartze koordinatua sustatu.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia oso dokumentu landua da Emakunderen barruan, eta Erakundetik kanpo ere kontraste handia egin da. Emerjenteak diren gaiak jorratzen ditu, hala nola interseksionalitatea, gizonen inplikazioa edo zaintzak.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

EGOITZA BAZTERKETA LARRIAREN AURKAKO II. EUSKAL ESTRATEGIAK IKUSPEGI DIMENTSIONIZTUNA ETA ESKUBIDEETAN OINARRITUA DU

- **Testuak 7 jarraibide eta 20 neurri zehatz jasotzen ditu, horiei lotutako gomendioekin, eta 30 proiektu traktore baino gehiago**

Eusko Jaurlaritzak Egoitza Bazterketa Larriaren aurkako Euskal Estrategia berria prestatu du. Estrategia berriak ikuspegi dimentsioaniztuna txertatzen du, eta, modu konbinatuan eragiten du, besteak beste, etxebizitza eskuratzeko zailtasunetan, pobrezian eta enpleguaren, osasunaren eta gizarteratzearen arloetako babes-gabezia. Genero- eta intersekzio-ikuspegia ere badu, generoa, adina eta jatorria, besteak beste, desberdintasun- eta bazterketa-faktoretzat hartzen dituena. Azken batean, egoitza-bazterketa larrian eragiten duten “kausa” edo faktoreei heltzean aurrera egitea da helburua.

Estrategia berriak, halaber, eskubideetan oinarritutako ikuspegi bat hartzen du: etxebizitza eta enplegua, diru-sarrerak, osasuna, hezkuntza eta zainketak (gizarte-zerbitzuak). Eta indartu egiten du ikuspegi komunitarioa, prebentzioarena, parte-hartzearena, hurbiltasunarena eta arretaren pertsonalizazioarena, helburu hartuta gizarte-ongizateko sistema publiko osoaren erantzuna muturreko inguruabarrei aurre egiten dien kolektibo espezifiko bati egokitzea.

Estrategia honen asmoa da eragitea interakzio dinamikoan bazterketa eta, zehazki, egoitza-bazterketa larria sortzen edo indartzen duten faktoreetan. Horretarako, 7 jarraibide eta 20 neurri zehatz jasotzen ditu, horiei lotutako gomendioekin, eta 30 proiektu traktore baino gehiago, hala nola gidalerroak, haren helburu estrategikoak lortzera bideratuta.

Dokumentuak Etxerik Gabeko Pertsonentzako 2018-2021 Euskal Estrategiari jarraipena ematen dio. Hortaz, izena aldatu arren, dokumentua gaiari heltzen dion II. estrategia da. Nomenklatura berri honek egoitza-bazterketako egoeretan arreta jartzea eskatzen du, ETHOS (European Typology on Homelessness and Housing Exclusion) tipologiaren arabera, egoera horiei etxebizitza-politikatik eta gizarte-babeseko euskal sistema osatzen duten bost azpisisitemen lan koordinatutik heltzeko. Hona aipatutako azpisisitemak: gizarte-zerbitzuak, osasuna, hezkuntza, enplegua eta gizarteratzea eta diru-sarrerak bermatzea. Hautu hori egin da gizarte-zerbitzuetatik bakarrik edo nagusiki erantzun beharrean.

Dokumentuaren funtsezko beste elementu bat da Euskadin familia-laguntzako sarerik ez duten gazteei ematen zaien erantzuna gazteria- eta migrazio-politiketan kokatzea, bazterketa-saretik erantzun beharrean (gizarte-zerbitzuetatik), horiek kaletik aterata edo esperientzia hori aurreztuta.

Estrategia horren helburua da 2028an egoera horretan dauden pertsonak ezagutzea araudiak aitortzen dizkien eskubide guztiak, baita gizarte-zerbitzuen, osasunaren, hezkuntzaren, enpleguaren, diru-sarreraren bermearen eta etxebizitzaren arloko sistema eta politika publikoetara iristeko bideak ere. Era berean, etxebizitza eskuratzeko beste aukera bat eskaini zaie, behar adinako laguntzen eta beren kasurako egokien konbinazio batez gainera. Helburua da, azkenik, beren gizarteratze-prozesuan eta komunitateko bizimodu independentea garatzeko bidean aurrera egin dezaten.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK ARGI BERDEA EMAN DIO GOGORA INSTITUTUAREN ETA MARTXOAK 3 ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENARI

- Akordioa 35.000 euroko dirulaguntzaren bidez gauzatuko da, *Martxoak 3 Memoriagunea* sortzeko beharrezkoak diren ikerketa-, inbentario-, dokumentazio- eta zabalkunde-lanak egiteko
- Hitzarmena bihar sinatuko da, otsailaren 14an, 18:00etan, Eusko Jaurlaritzaren Gasteizko egoitza nagusian
- Nerea Melgosak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak, halaber, Martxoaren 3ko Fundazioa eratzeko eskritura sinatuko duela iragarri du

Nerea Melgosak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak, Gobernu Kontseiluaren oniritzia jaso ondoren, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren eta Martxoak 3 Elkartearen arteko hitzarmena sinatuko dela iragarri du. Melgosak bileraren osteko prentsaurrekoan hitz egin du, eta jakinarazi du bihar, otsailaren 14an, 18:00etan, bi aldeek akordioa sinatuko dutela Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusian, Gasteizen.

Era berean, sailburuak iragarri du hurrengo egunean, otsailaren 15ean, notario aurrean formalizatuko dela *Martxoak 3 Memoriagunea Fundazioa* eraketa. Lau erakunde fundatzaile dira: Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia, Gasteizko Udala eta Gasteizko Gotzaindegia. Martxoak 3 eta Memoria Gara elkarteak ere fundazioaren patronatuko kide izango dira, gizarte-ekimenaren ordezkari gisa.

Fundazioa sortu aurreko hitzarmena sinatzeak "elkarlanerako oinarriak ezartzen ditu, argi eta garbi beharrezkoa den elkarlana", Melgosa sailburuaren hitzetan.

Gogora Institutuaren eta Martxoak 3 Elkartearen arteko akordio horren helburua lankidetzaz-esparru bat sortzea da, Martxoak 3 Elkarteak eta Gogora Institutuak *Martxoak 3 Memoriagunea* sortzeko prozesuan dituzten baliabide historikoak, materialak, dokumentalak eta erakusketakoak laguntzeko eta emateko. Hitzarmenak ikerketa, dokumentazio eta inbentariatzeko lanak jasotzen ditu, eta horretarako, Gogora Institutuak 35.000 euro bideratuko ditu.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

HITZARMENA HABE-REKIN, HIRU EUSKAL ESPETXEETAKO ASKATASUN-GABETUEI EUSKARAZKO KLASEAK EMATEKO

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Jaurlaritzaren Kontseiluan aurkeztu du Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearekin (HABE) akordio bat sinatzea, hiru euskal espetxeetan preso dauden pertsonei euskara irakasteko.

HABErekin sinatutako lehen hitzarmena da, eta berariaz jasotzen du euskara irakasteko ikastaroak berrantolatu, kontrolatu eta horien jarraipena egin eta ematea. Horretarako, akordioak 100.000 euroko ekarpen ekonomikoa ezartzen du 2024rako.

Akordio honen bidez, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Euskal Espetxe Ereduaren esparruan ahalbidetzen duen prestakuntza-zorro zabala indartu nahi da. Eredu horren azken helburua askatasunik ez duten pertsonen berreziketa eta gizarteratzea da.

Ildo horretatik, uste da barnekoek euskara jakiteak lagundu egiten duela esparru guztietan barneratzen, elkarrekin bizi diren euskal gizartearen kulturaren zati garrantzitsu batera hurbiltzen baititu.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK EMAKUNDEREN ETA DOMINIKAR ERREPUBLIKAKO EMAKUMEAREN MINISTERIOAREN ARTEKO ELKAR ULERTZEKO MEMORANDUMA ONARTU DU

- **Ideien eta esperientzien trukea sustatuko da emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan**

Gobernu Kontseiluak Emakunderen eta Dominikar Errepublikako Emakumearen Ministerioaren arteko akordio-memoranduma onartu du gaur. Memorandum horren bidez, lankidetzaz ezarri da berdintasun- eta sentsibilizazio-politika publikoak sustatzeko eta bultzatzeko.

Zehazki, bi erakundeek informazioa eta esperientziak partekatuko dituzte emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzearekin eta indarkeria matxistaren aurka egiten duten programei eta zerbitzuei buruz.

Era berean, emakumeen eta nesken eskubideen defentsa, emakumeen eta gizonen arteko denboraren erabilera orekatua edo emakumeen ekintzailera-politikak bermatzeko gauzatutako ekimenak bateratuko dira.

Akordio horrek, halaber, genero berdintasuna sustatzen duten lan-jardunbide egokiei buruzko ezagutzak trukatzeko aurreikusten du, Dominikar Errepublikako euskal enpresentzako informazio-instantziak sortuz.

Seguridad

EL GOBIERNO Y LAS DIPUTACIONES FORALES FIRMARÁN UN CONVENIO PARA LA FINANCIACIÓN CONJUNTA DE UN HELICÓPTERO PARA LA EXTINCIÓN DE INCENDIOS EN EUSKADI

- **La creciente incidencia del cambio climático, con el aumento de fenómenos meteorológicos extremos como las temperaturas muy elevadas y mantenidas en el tiempo, ha aumentado notablemente el riesgo de incendios forestales**
- **En Euskadi hay 26 parques de extinción de incendios cuyos medios materiales se completarán, ahora, con un recurso aéreo específicamente diseñados para esta tarea**

El Consejo de Gobierno ha autorizado, hoy, la firma de un convenio de colaboración entre el Gobierno Vasco y las diputaciones forales de Bizkaia, Gipuzkoa y Araba para financiar, de forma conjunta, el arrendamiento de un helicóptero para la extinción de incendios. Este acuerdo responde a la creciente incidencia del cambio climático en Euskadi y su reflejo en el aumento de la frecuencia de los episodios de fenómenos meteorológicos extremos, algunos de los cuales, como las temperaturas elevadas y mantenidas en el tiempo, favorecen el riesgo de incendios forestales.

El convenio, que próximamente se firmará y dará inicio al expediente de contratación, es fruto de un profundo análisis llevado a cabo por las cuatro instituciones. Responde a la conveniencia de completar los equipos ya existentes para la extinción de incendios, habilitando también recursos aéreos específicamente diseñados para esta finalidad.

El Gobierno Vasco ha aprobado una partida **presupuestaria de 1,2 millones de euros** (891.000€ para el arrendamiento y 330.000 para un máximo de 240 horas de vuelo) para materializar la contratación de este servicio, en régimen de arrendamiento, que se financiará por parte de todas las instituciones de acuerdo con este porcentaje:

- Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco: 17,50 %
- Diputación Foral de Araba: 22,32 %
- Diputación Foral de Bizkaia: 32,66%
- Diputación Foral de Gipuzkoa: 27,52%

Según el convenio, además del coste del alquiler del helicóptero, cada institución financiará los costes por hora de utilización del helicóptero en su territorio conforme al precio que se fije en el contrato.

26 parques de extinción de incendios

En Euskadi hay 26 parques de extinción de incendios de titularidad foral y municipal: 10 en Bizkaia, 9 en Gipuzkoa y 7 Araba. Este acuerdo es posible gracias a las competencias de Euskadi en materia de seguridad pública, protección civil y emergencias. Tiene en cuenta el respeto a la autonomía local y a la atribución competencial que, tanto la Ley de Territorios Históricos como la Ley de Instituciones Locales de Euskadi otorgan a las diputaciones forales y a los municipios en materia de ejecución de la normativa autonómica en extinción de incendios.

Vigencia y seguimiento

El convenio tendrá una vigencia de dos años (desde la formalización del contrato de arrendamiento) con posibilidad de prórroga de dos años más.

Con el objetivo de coordinar las actividades necesarias para su ejecución así como para llevar a cabo su supervisión, seguimiento y control, se creará una comisión integrada por dos personas designadas por cada una de las cuatro instituciones.

Trabajo y Empleo

LANBIDE DESTINARÁ ESTE AÑO TRES MILLONES DE EUROS AL PROGRAMA HEZIBI DE FORMACIÓN Y TRABAJO EN ALTERNANCIA PARA JÓVENES

